



KulturGest Bilbao Kongresua: ARTEA, KULTURA ETA ONDAREA: kudeaketa eta jasangarritasunera ko praktika egokiak



Eka. 20 - Eka. 21 2024

Kod. K02-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Workshop

Data

Eka. 20 - Eka. 21 2024

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Azken urteotan, gizarte eta giza zientzietan, asko eztabaidatzen ari da arteak eta kulturak Garapen Iraunkorreko Helburuei (GIH) egin ahal dizkieten ekarpenei buruz. Hain zuen ere, ikusi dena zera da: kulturaren eta ondarearen alorra ezin dela errealitate horretatik kanpo gelditu eta, egiatan, garapen inklusibo eta iraunkorra bultzatzeko paper garrantzitsua joka dezaketela.

Giza garapenaren eta planeta babestearen artean oreka bilatu nahi duen mundu honetan, artearen, kulturaren, ondarearen eta jasangarritasunaren arteko harremanen gaiak gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da. Testuinguru horretan, Nazio Batuen Erakundeak zehaztutako GIH delakoek jasangarritasuna, bere forma guztietan, bultzatu dezakeen marko orokorra eskaini dezakete, eta artea, kultura eta ondarea oinarritzko osagaiak dira helburu horiek lortzeko.

Kulturaren eta garapen jasangarriaren arteko harremana uka ezina da. Kulturak modu aktiboan parte hartzen du elkarriketa sozialean, eta, era berean, paper garrantzitsua jokatzen du aldaketa sozialean. Kultura komunitatea kohesionatzea duen ezinbesteko elementua da, inklusioa eta berdintasuna bultzatzen dituelako eta hiri eta ingurune urbano berdinzaleagoak eta jasangarriagoak sortzea ahalbidetzen duelako.

Sormen eta prozesu artistikoak, euren forma desberdinetan, jasangarritasunaren aldeko kontzientzia sortzeko bitarteko indartsuak izan daitezke. Sormen artistikoek pertsonak kontsumo arduratsua egitera, klima aldaketaren aurka borrokatzera eta ondareari loturiko ekosistema zein ekosistema naturalak babestearen aldeko neurriak hartzera bultzatzen dituzte. Gainera, adierazpen artistikoak gogoeta eta ekintza bultzatzen duten mezuen igorle edo/eta hedatzaileak ere izan daitezke.

Kultura Ondareari dagokionez, jasangarritasuna da ondare kulturalari buruzko Ekintzarako Europako Markoaren bost zutabe garrantzitsuenetako bat. Ikuspuntu horren arabera, ondare kulturalak giza kapitala indartzeko, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko eta ingurugiroaren jasangarritasuna ziurtatzeko gaitasuna dauka.

Ondare kultural eta naturalak zaintzea ezinbestekoa da planetaren iraunkortasunerako. Gainera, kulturari loturiko turismoa bultzatzeko eta herri eta auzoak garatzeko baliabide jasangarria da. Izan ere, toki kulturalak gure ingurunea zaintzeak eta historia babesteak duen garrantzia erakusten digute. Era berean, ondare kultural eta naturalak zaintzeak pertsonen bizitza aberasten du, aniztasuna balioan jarri eta tokian tokiko tradizioak errespetatzen dituelako.

Artea, kultura eta ondarea ez dira jasangarritasuna lortzeko bitarteko soilak, garapen jasangarria lortzeko ezinbesteko osagaiak baizik. Era horretako adierazpenek gure bizitza aberasten dute, ekintza positiboak ernamuntzen dituzte eta gure sustraiekin eta ingurunearekin konektatzen gaituzte. Artearen, kulturaren, ondarearen eta jasangarritasunaren arteko elkarrekintza bizi garen planetarekiko harremanean berdinzaleagoa eta armoniotsuagoa izango den etorkizun bat lortzeko bidea da.

Bi egun iraungo duen **kongresuak, gai hauen inguruan egin diren ikerketa, egitasmo eta ikerketa lerroak erakutsi eta zabaldu nahi ditu.** Alde batetik, gonbidatutako konferentziak izango dira, 2030 Agendak zehaztutako testuingurua eta kulturari eta ondareari loturiko sektoreak jasangarritasunaren inguruan sortu den paradigma berrian duen erantzukizuna ulertzen lagunduko dutenak; eta, bestetik, hiru gai hauen inguruan komunikazioak aurkeztuko dira:

- Kultura Ondarea eta jasangarritasuna
- Sormen prozesuak eta jasangarritasuna
- Kudeaketa kulturala eta jasangarritasuna

ANTOLAKUNTZA BATZORDEA

- Patxi Juaristi, UPV/EHU
- Alazne Porcel, UPV/EHU
- Enara Artetxe, UPV/EHU
- Arantxa Elizondo, UPV/EHU

BATZORDE ZIENTIFIKOA

- Alazne Porcel (Arte Ederren Fakultateko Irakaslea)

- Arantxa Elizondo (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea)
- Enara Artetxe (Arte Ederren Fakultateko Irakaslea)
- Estibaliz Saez de Camara (EHU-ko Jasangarritasuneko zuzendaria)
- Miren Ibarluzea (EHU-ko Kulturaren arloko zuzendaria)
- Patxi Juaristi (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea)

KOMUNIKAZIOAK AURKEZTEKO EPEA ZABALIK azaroaren 13tik 2024ko urtarrilaren 26ko arratsaldeko 16:00ak arte.

Komunikazioak aurkezteko, proposamenak bidaltzeko epea ireki da **2023ko azaroaren 13tik 2024ko urtarrilaren 26ra**, 16:00ak baino lehen

Komunikazio proposamenek egitura hau izan beharko dute:

- Komunikazioaren izenburua.
- Autorearen edo autoreen izen eta abizenak.
- Lantokia (Unibertsitatea, fakultatea, saila, enpresa e.a.).
- Autore guztien posta elektronikoa eta telefonoa
- Hitz gakoak: 3-5 hitz
- Laburpena: sarrera, argudioak (helburuak, metodoa eta baliabideak) eta eztabaida (emaitzak, ondorioak...), argi utziaz zein den aurkeztu den komunikazioaren eduki orokorra.

KOMUNIKAZIOAK AURKEZTEKO FORMULARIOA

DATA GARRANTZITSUAK

- Kongresua ospatzeko egunak: ekainak 20 eta 21
- 2023/11/13 Komunikazio proposamenak aurkezteko epearen irekiera
- 2024/01/26 Komunikazio proposamenak aurkezteko epearen bukaera
- 13/02/2024 Komunikazio proposamenaren onarpenaren/ukapenaren komunikazioa
- 13/09/2024 Komunikazioaren testu osoaren aurkezpena
- 2024ko abendua akten argitarapena

Helburuak

Kulturak eta ondareak jasangarritasunarekiko duten harremanaren esparruan, maila lokalean, Estatu mailan eta nazioarte mailan sortzen ari diren beharrian, erronka eta estrategiak identifikatzea.

Maila lokalean, Estatu mailan eta nazioarte mailan, kulturaren eta jasangarritasunaren inguruan garatu diren praktika onak ezagutaraztea eta aztertzea.

Kudeaketa kulturalaren eta jasangarritasunari buruzko gogoeta bultzatzea.

Kulturaren eta ondareari loturiko prozesuetan eta kudeaketan inplikaturik dauden eragileen arteko ezagutza sareak partekatzea, ikastea eta sortzea.

Lankidetzak



Zuzendaritza



Patxi Juaristi Larrinaga

UPV/EHU , Doctor en Sociología. Profesor en la Facultad de Ciencias Sociales y de la Información

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) unibertsitateko irakasle titularra da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Politika eta Administrazio Zientzia Sailean. Soziologian lizentziaduna (1990) eta doktorea (1995) da, eta UPV/EHUko irakaslea, 1993az geroztik. 1998an irakasle bisitaria izan zen Idahoko Unibertsitatean (AEB). 2005etik 2009ra bitarte, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate arloko zuzendaria izan zen. 2011tik 2012ra, Gobernantza eta Politika Ikasketak Masterreko koordinatzailea izan zen, eta, 2015. urteaz geroztik, UPV/EHUko Hizkuntza Politikak eta Plangintza Masterreko idazkari akademikoa da. 2009tik 2017ra UPV/EHUko Gizakiekin egindako Ikerketarako Etika Batzordeko (GIEB) kidea izan da. Halaber, UPV/EHUko Master eta Doktorego Eskolako Kalitate Batzordeko kidea da (2016). Artikulu ugari eta 13 liburu argitaratu ditu euskal kultura, euskaldunen balio, euskara eta, oro har, hizkuntzei buruz. Gerra Zibilarekin eta memoria historikoarekin lotutako gaien gainean ere ikertu eta argitaratu du. Enpresa edo/eta administrazioekin gauzatutako I+Gko 33 kontratutan eta deialdi publikoetan finantzatutako I+Gko 18 proiektutan parte hartu du, eta horietako batzuen zuzendaria izan da.



Alazne Porcel Ziarsolo

UPV/EHU

Arte Ederretan lizentziatua eta doktorea (UPV/EHU, 2012) eta Artearen Historian Graduatua (UNED, 2015). Gaur egun, irakasle atxikia da UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Pintura Sailean. Bertan Ondare Kulturalen Kontserbazioa eta Zaharberritzeari buruzko graduan eta Arte Garaikidearen Kontserbazio eta Erakusmoldeak (CYXAC) Unibertsitate Masterrean irakasten du. Bere ikerketa lerro nagusiak arte garaikidean eta ehun eta material sintetikoen kontserbazioan oinarritzen dira. Teknologia berrien erabilera ondarearen azterketan eta hedapenerako ere aztergai ditu eta ondarearen eta arteen hezkuntza eta didaktikarekin lotutako proiektuetan ere kolaboratzen du Hezkuntza Fakultateko Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saileko irakasleekin

Irakasleak



Goizane Aipurua Ibañez



María Alejo Armijo

Universidad de Almería



Jon Arcaraz Puntonet

EHU



Maite Barrio Olano



Itziar Belza Lapuente



DULCE NOMBRE DE MARÍA BERMÚDEZ BERMÚDEZ RICALDE



Irene Cárdbaba López

Gipuzkoako Foru Aldundia



Alex Carrascosa Vacas



Julio Catalán Rubinos

Universidade de Vigo



Rut Caveró Luján



Nerea de Diego Murillo

Universidad Pública de Navarra

Profesora de la Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Artista visual, licenciada en Bellas Artes y doctora en Investigación y Creación en Arte por la EHU/UPV. Investiga sobre las relaciones entre patrimonio, arte contemporáneo, comunidad y territorio. Destacan su participación en el proyecto TRESNAKA, un archivo de artistas y prácticas educativas, o Topategia, un mapeo abierto de agentes artísticos de Navarra. Entre el 2016 y el 2022 ha sido codirectora del Centro de Arte Contemporáneo de Huarte en un proyecto de gestión colegiada. Investigando sobre modelos colaborativos en la gestión cultural. Desde su práctica artística se interesa por la religiosidad y los rituales populares, el territorio, los memoriales y acumulaciones votivas.



Alejandro Fuertes Sánchez

Universidad de Vigo



Jone Goirigolzarri Garaizar

Deustuko Unibertsitatea



Susana Jodra Llorente

UPV/EHU, Arte Ederren Fakultatea

Susana Jodra Llorente (Sopelana, 1971) Arte Ederretan Lizentziatua UPV/EHU, Masterra Berlineko HDK-n burutu zuen eta Arte Ederretan Doktorea UPV/EHU da. Bere jarduera artistiko-ikertzailea eta irakaskuntza inprimatzeko teknika analogiko eta digitalean oinarritzen da, serigrafiari arreta berezia eskainiz. Bakarka eta taldeko erakusketetan parte hartu du nazio eta nazioarte mailan: Berlin, Berna, Tainan... Patricia Schneider artista suitzarrarekin Modulares proiektu artistikoan dihardu. Argitalpen anitzetarako ilustrazioak eta idatziak argitaratu ditu ere (Grabado y Edición aldizkaria, Insula aldizkaria, Pott banda liburua...) Gaur egun UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Irudigintza Sailan irakaslea da eta Graduetan zein Ikerketa eta Sorkuntza Artean Masterrean eta Zeramika:Arte eta Funtzioa Masterrean irakasten du. Bernako Hochschule der Künste-ko inprimaketako sailarekin lan egiten du. LAIDA (Literatura eta Identitatea) ikerketa taldeko kidea da.



Ines Larrinaga Zamora



Ane Loinaz Etxarte

Gordailua





Mari Carmen Marín Ruiz



Alfons Martinell Sempere

Gironako Unibertsitateko irakasle titular erretiratua. Garapen Iraunkorrerako Espainiako Sareko (SDSN- REDS) Kulturari eta Garapen Iraunkorrari buruzko Ezagutza Komunitatearen zuzendaritza zientifikoa darama. UNESCO Pau Casals katedrako zuzendarikidea. Musika eta Bakearen eta Giza Eskubideen defentsa. Unescoren "Kultur Politikak eta Lankidetzak" katedraren zuzendaria eta sortzailea izan zen (2000-2014). Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziako Kultura eta Zientzia Harremanetarako zuzendari nagusia izan zen. Espainiako Kanpo Arazoetako eta Lankidetzarako Ministerioa (2004-2008) Interarts Fundazioaren sortzailea eta presidentea (Bartzelona). (1995 - 2004). Kultura-kudeatzaileen prestakuntza, kultura-lankidetzaren eta garapenean, kultura-politiketan aditua. Hainbat liburu, artikulua eta lan argitaratu ditu kultura-kudeaketaren, kultura-politiken, kulturaren eta garapenaren eta nazioarteko kultura-lankidetzaren arloetan. Espainiako, Europako, Latinoamerikako eta Afrikako hainbat unibertsitatetan irakatsi du. Kultura-lankidetzako proiektuak zuzendu ditu nazioarteko erakundeetan.



Elena Righini Righini



Pilar Rubiales Fuentes

Arte Ederretan eta Artearen Historian lizentziatua, arte garaikidearen kontserbazio eta zaharberritzeko espezialitatearekin. Praktikak egin ditu MNCARSen, Espainiako Filmategian eta Peggy Guggenheim Museoan. 2016az geroztik, Museoen Kontserbatzaileen Talde Fakultatiboko kide da, eta haren barruan Greco Museoko kontserbatzailea izan da. 2022az geroztik, Kultura Ministerioko Kultura Ondare eta Arte Ederretako Zuzendaritza Nagusiaren Laguntza Unitatean lan egiten du, hainbat proiektu estrategikotan koordinazio lanak eginez. YOCOCUren Espainiako adarra (Youth in the Conservation of Cultural Heritage) edo Círculo Greco Elkartearen bezalako ekimenetan inplikaturik dago.



Ibon Telleria Julian

(LasarteOria, 1974) Arkitekturan lizentziaduna, EHUko Arkitektura Eskolako irakaslea da, eta Ondareko interbentzioaren inguruko ikasgaietan klaseak ematen ditu besteak beste. Donostiako EHUko Arkitektura eskolan ematen den Eraikitako Ondarearen Zaharberritzea eta Kudeaketa Osoa Unibertsitate Masterreko baserrien tailerreko arduraduna da. Zuraren arkitekturan murgilduta dagoen ESMAARQ ikerketa taldearen partaidea da. Baserriaren gaiaren inguruko ikerketa lanak egin ditu, besteak beste, Urdaibai Biosfera Erreserba: Lurzoru urbanizaezinean dauden bizitzen bikoizketak duen lurralde mailako eragina. Ondarearen inguruko hainbat artikulua idatzi eta Kongresu desberdinetan parte hartu du. XV. mendeko baserri batzuren bilakaera historikoari buruzko tesia hedatzen ari da. Arkitekto bezala, landa lurraldean kokatzen diren hainbat birgaitze lan garatu ditu



Itziar Zabalza Murillo



Haizea Salazar Basañez

Matrikula prezioak

MATRIKULA AURREZ AURRE	2024-06-19 ARTE
Orokorra	0 EUR

MATRIKULA ONLINE ZUZENEAN - ZOOM	2024-06-17 ARTE	2024-06-19 ARTE
Orokorra	0 EUR	-

Kokalekua

Bizkaia Aretoa-UPV/EHU

Abandoibarra etorbidea. 48009- Bilbo

Bizkaia